



EGUNEKO DIANAK




C.Moseley eta Nighthorse

Historian lehenengoz, emakumezko beltz bat eta indigena bat aukeratu dituzte senadore EEBBetako hauteskundeetan: Carol Moseley eta Ben Nighthorse Campbell 'Gaueko Zaldua'. / 18



Joxe Azurmendi

Joxe Azurmendi pentsalaria-ren 'Espainolak eta euskaldunak' saiakera kaleratu du Elkar argitaletxeak. Penintsulan bizi diren herrien arteko arazoaren gaia, intolerantziaren kultura historikoa, jorratu du. / 23



Iruñeko Udala

Iruñeko Udalaren kultur politika gaitzetsi du Nafarroako Antzertilari Elkarteak. Antzerki taldeek ez dute emanaldi bakar bat egin aurten hiriburuan. / 24

Barraka, gau-lanetan hezitako lasterkalaria

JOXEMANUEL IRIGOIEN / LESAKA


Julian Mitxelena lesakarra dugu. Barraka baserrian sortua. Gaur egun argi-indahar zentraletako kanaleak garbitzen enplegatua dena, duela 20-23 urte aski ezaguna bilakatu zen Bidasoaldean. Izan ere, hiru urtez segidan Saran egiten den Kontrabandisten Lasterketan irabazle izana baita, eta gainerakoetan, aurre-aurreko postuetan parte hartu zuen aldiro.

29 urte zituela estrenatu zen lehen aldiz Sarako lasterketan «Lesakako Kasinoko Miguel zenak animatuta». Azkaine, Irun eta Hondarribian antolatutako zenbait lasterketan ere parte hartu izan du hainbat aldiz. Hala ere, «kurritutako guzietatik zailenak Sarakoak izan dire», han baitaude maldarik gogorrenak» dio Barrakak. Bere garaian 15-16 kiloko zakua eramaten omen zuten bizkarrean, gaur egun berriz, eraman beharreko pisua zortzi kilokoa da eta zaku batean sarturik eraman beharrean, lepo ondora ingura daitekeen zorro batetan sartuta dago.

Saratik Larun gainerako joan-etorria egiteko erabiltzen zuen denboraz ere ederki gogoratzen da, «nik 12 kilometroak egiteko 46 minutu behar izan nituen, aurtengo lasterketan irabazle izan den Irazoki Berrak 41 minutu eta 15 segundutan egin du noski. Marka onak egiteko gogor eman beharra zaio lehenagotik!».

Sariei dagokienez, aldiro koparen bat etxeratu duela dio Julianek, eta ordudunik etxean 14 edo 15 badiu altxaturik. Dirutan saririk hoberena Hondarribiko Guadalupen egindako lasterketa batean lortu omen zuen ordea: «Orain dela 19-20 urte 7.000 pezetako saria politta zen gero!».

Lagunik hoberenak lasterketan edo kontrabandoan eginak dituen galdetutakoan Julianek ez du inola-



SOSLAIA

Neurriko lasterketak

Julianek kontatu digun bizmodua arrunta izana da duela urte batzuk Bidasoaren bi aldeetan. Gerra ondoko urte haietan makina bat gazte ibilia da puntillak, kafea, errodamentuak, botoiak eta antzekoak iparraldetik hegoaldera pasatzen eta abereak aldiz, hegoaldeko iparralderako bidean. Julian dugu horren lekukoetatik bat. 16 urte zituela hasi zen horretan eta 29 zituela, ezin egokiago suertatu zitzaion 'Sarako Kontrabandisten Lasterketan' famaren gailurrera ailegatu zen. Aurten, lasterketa honek bere hogeitamargarren edizioa bete duenean, omenaldia jaso du urteotan irabazle suertatu diren gainerako lasterkalariekin batera.

ko dudarik agertu, «kontrabandoan» dio berehala. «Lasterka kontrario aunitz! Norbait erortzen bazen... 'izorradi' erran bai!».

Izan ere, 16 urte zituela hasi omen zen Julian gau-lanetan, furi-furian zegoen. Hortaz, Sarako bideak lehenagotik ongi ezagutuko zituela aipatzerakoan, «bai horixe, aski ongi bai!» erantzun du Julianek irribarretsu. «Sarako lasterketa izaten zenean, egunez Saran kurritu, gauera-ko etxera etorri, afari bokadua egin eta gauez segi berriz Lesakako zubira paketea hartzera!». Normalean paketea Lesakako zubian hartu eta Oiartzun edo Irungo mugara eramatea izaten omen zen, «beti bide berrietatik, bertzenaz egunero bide beretik pasatuz arrastoak uzten baitira!». Zenbaitetan harrapatua izanaz ere 'oroitzen da Julian, «aunitzetan tiro burrunba ederrak bai! Halere beti eskapatu egiten ginen». Gogoratzen duen eskapadarik larriena Saran izandako bat izan omen zen, portugesak pasatzen ari zirenean. «Laino zerratua zen gau hartan, eta ustez eraman behar ziren etxeko atea jo genuen, hara non gendarmeak zeuden txabolakoa jo! Gendarmeak agertu eta tiroka hasi ziren. Hura bai ederra!».

Diru aldetik, bertzalde, irabaziak arras diferenteak ziren paketeak pasatuz edo portugeseekin. «Guk 25 laguneko multzoa pasatzen genuen Oiartzun aldetik Sararaino. Bakoi-tzagatik mila pezeta ordaintzen ziguten. Bortz mila duro gau batean jornal politta zen gero duela hogeit urte!».

«Urte fuerteak izan ziren haiek!» dio Barrakak oroitzapenei errebasoa emanez. Izan ere, egunez baserriko lanetan aritu eta gero gauez hiru edo bost orduz berriro ibili beharra fisikoki gogorra suertatzen bait zen. «Bertze bizimodua zen hura. Geroztik izugarri aldatu da dena!».

LERRU GUTXITAN

Zartakoak epaigai

Ustaritzeko PSko militante batek epaitegira eraman du Patxako kide bat, zartako bat eman ziola eta. Joan zen maiatzaren 31n izan zen gertakaria, intsumisio kanpainaren barruan. Sozialistaren esanetan, Baionako ostatu batean intsumisioaz hizketan hasi eta haserretu egin ziren. «Besteak zartada bat eman eta ondoren ondoezik egon nintzen». Patxakoak ukatu egin zuen salaketa.

ONCE

ASTEAZKENA

20.896


ASTELEHENA 32.500

ASTEARTEA 19.055

OSTEGUNA

OSTIRALA KUPOITZARRA

irrimarra



© Jon Zabaleta

GORBEIAN PARKE NATURALA EGITEKO PLANARI ALEGAZIO eta IRITZIAK

aurkezteko denborarik izango da oraindik. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak atzo iragarri zuen azaroa eta abenduan elkarriketak egingo dituela parkearekin zerikusi duten pertsona eta taldeekin. «Solasaldion ondotik planari buruzko dokumentua burutuko dugu eta ondoren alegazioak aurkezteko aukera izango da», esan zuen Luis Javier Telleria Natura Ingurunearen Antolakuntza eta Ikerketa zuzendariak. Orobat, elkarriketek «proiektuaren inguruko informazio faltak eragindako tentsioa gutxitzea» espero du Gobernuak.

MEATZARI BAT HIL ZEN LAN ISTRIPUAN

herenegun gauean Ponferradan (Leon). Tomas Arias Arias 45 urtekoa, ezkondua eta Noceda del Bierzo herrikoa zen. Meategian lurjausia izan zen eta azpian harrapatu zuen langilea: burezurrean fraktura eragin zion, beste zauri batzuez gain. Hilda atera zuten lur azpitik. Bederatzi langile hil dira aurten dagoeneko lan istripuz aipatu meategian.

'ABC' EGUNKARI MADRILDARRA egunero banatzen da Polonian, baita herririk txikienetan ere. Adituen esanetan, Polonian ehundaka mila pertsona daude espainiarazko prentsa irakurtzeko gai direnak. Dena den, 'Abc' ez da gehiegi saltzen, garestia delako (bi dolar, 200 pezeta inguru), bertako egunkarien prezioaren halako hamar.

GABONSARIA ESKATZEN etxez etxe ibili diren bi kale-garbitzaile faltsu atxilotu zituen atzo Bartzelonan Udaltzaingok. Gabonetako postalak banatu eta trukean dirua eskatzen zuten gabonsari gisa. Atxiloteta unean 200.000 pezeta eta 50 postal zeramatzaten soinean.